

# ARRASATE P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 11 / 637. zenbakia

## Mac Jeara's Band

Donostialdeko taldeak 'Dixie' doinuak  
dituen kalejira egingo du, eta New Orleansko  
musika gogora ekarriko du



ORAIN ETA HEMEN: UDAL ANTOLAMENDUA/6 • KIROLA: ARRASATEARRAK IRONMAN PROBAN/9

AZALA: ALEX AZKARATE/ARGAZKIA: MC JEARA'S

OSASUN GIDA/2

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. .... 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ..... 943 77 05 57

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 ..... 943 71 27 93

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ..... 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. .... 943 77 14 72

## Kiropraktika zentrua

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ..... 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ..... 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiomasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldagian ere bai) .. 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ..... 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ..... 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. .... 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ..... 943 79 25 98
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ..... 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzezino, 2 ..... 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... 659 58 66 89

## podologia

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma ..... 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ..... 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... 943 79 88 16


## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. .... 943 79 44 22

## KALEINKESTA/ Mondraguen multiziniak jarri ezkerro, kapitaletara jueten segiduko zeuke?



**LUIS RUIZ DE AUSTRI**  
Langillie



**JOSEBA IRIARTE**  
Langillie



**ASUNCION UBEDA**  
Langillie



**AMAIA PINACHO**  
Ikaslie



**JON PETREÑAS**  
Langillie



**JOSEFINA MUJIKA**  
Langillie

Oin, umiek diela-eta, ez naz zineraz askotan jueten, baiñe lehen sarritan jueten nitzen, eta ez neuken Gasteizera jueteko ohiturarik. Multiziniak jarri ezkerro, Mondraguen hobeto.

Ni neu herriko multizinietara juengo nitzake, ez nitzake Gasteizera juengo. Pentsetan dot gaiñerako mondraguetarrek be hori egingo leukiela, baiñe hori eurei pregunteu biher...


Nik neuk Gasteizera jueten segiduko neuke; azken baten, aste bukaeretan kanpora urten gure izeten dogu-eta. Gaiñera, kapitaletan aukera gehiago dauz, eta pelikula hobiek.

Nik uste dot Gasteizen gauza gehiago dauzela, eta hara jueten segiduko geukela. Hala be, pelikula bat ikusteko asmue baiño ez daukonak herrixen geratu-ko litzake; komoduague da.

Ibarrekuendako multiziniak jarri ezkerro, akaso ez gitza-ke Gasteizera juengo. Argi dauena da sala bakarra jartiek ez daukola etorkizunik; jartekotan, multiziniak izen biherko leukie.

Sarritan jueten nitzen zineraz, eta oin pelikula bat ikusi gure badot kanpora juen biher dot. Arrasaten jente asko dau zineraz jueten dana, eta multiziniak arrakastie eukiko leukie.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK UME SAHARARRAK GUREAN** Joan den eguaztenean, zortzi ume saharar etorri ziren Arrasatera. 7 eta 12 urte arteko gazte- txoak dira, eta bi hilabeteko egonaldia egingo dute Arrasateko fami- lien etxeetan. Are gehiago, bi hilabete horietan ekingo dute bateratuak antolatuko dituzte, ume horiek elkarrekin egoteko aukera izan deza- ten. Txalotzeko modukoa da familia horien ekimena.

### ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KIROLAK /9

KULTURA/12

#### Anorexia berbaga

Amaia Arroyo arrasatearrak anorexiaren gaineko liburua idatzi du, eta gurekin izan da.

#### Isa Casadori elkarrizketa

Isa Casado bigarren izan da Aizkorriko mendi maratoian, eta elkarrizketa egin diogu.

#### Lore Gazteak Monterronen

Eguaztenean, Lore Gazteak taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du Monterronen.

### ASTEKODATUA

# 55

#### DANTZARIK HARTUKO DUTE PARTE IKUSKIZUNEAN

Eguaztenean, uztailaren 16an, Lore Gazteak taldeko 55 dantzari- rik ikuskizuna eskainiko dute Monterron parkean. Horietatik 30 helduak dira eta gainerako 25ak, berriz, umeak.

### BESTEKEESANA

“

Liburu horren bitartez, ikasketak egin gura dituzten gazteek iraganean beste gazte batzuek

egindako lana ezagutu ahal izango dute: ezer egotetik, enpresak, lana eta aberastasuna sortu zuten, gizarteari onura egiteko helburu bakarrarekin. (...) Nortasun politikoa eta aberastasun industria- la galdua zuen herria altxatu beharra zegoen (...). 90eko hamar- kadan, berriz, kooperatibismoak borroka gogor egin behar izan zuen gainontzeko enpresen arteko kompetentzia oso gogorra zelako. (...) Bazkideei, kooperatibistei, sistema horrenganako konfiantza berreskuratzen lagundu behar zaie. 50 urte igaro diren arren, kooperatibismoak gaurkotatzen eta indarra dauka oraindik...”

JOSE MARIA ORMAETXEA  
'TU LANKIDE'/03-07-01

### HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



#### Militantea

**H**orixe hartu gura nuke oraingoan ahotan, bai, militantea. Euskal Herrian askotan entzuten den edo entzun izan den figura horren gainean berba egin gura nuke. Eta hiztegiak definizio horietako batean honako hau esaten du militantearen gainean: *Zerbaiten alde ari dena edo helburu bat lortzearen ekintzak egiten dituena*. Eta nik pentsatu dut militantearen eguneroko zeregine- tatik urrun geldit- zen dela definizio hori, teknikoki ongi agian, baina errealtatearekin alderatuz, eskas.

Izan ere, idealak eduki eta horien alde borrokatzeaz gain, bizitzeko modu bat ere bada militantzia. Ideal horiek amestearekin batera, horien gauzatea lortzea da militante- aren borrokak ematen duen saria; hitz egitea, elkarbana- tzea, gozatzea, amestea, maitatzea, ikastea, entzutea, borrokatzea, eman eta hartzea, sufritzea... gauza materialeta-

tik at gelditzen den ordainsa- ria, eta egungo gizarteak bizi duen errealtateetik ere, itxuraz, guztiz kanpo gelditzen dena.

Egungo mundu usteldu honetan, dirua, autoa, arro- pak, kreditu txartelak, plasti- kozko gizon-emakumeak, etxeak... maitatzen dira, eta horien ordainetan baino ez da zerbait ematen. Baina militanteak, kontraesanak, kontraesanak, badaki zer den egungo gizartearentzat *“hutsala den horren trukean lan egiten”* horren trukean lan egitea eta izerditzea.

Eta badauka egun bizirauteko hain beharrezkoa den sen kritikoa, iritzi *“propioa”* (propioagoa?), alternatibak sortzeko gaitasuna... Bihoakie, beraz, militante diren horiei guztiei nire mirespen handie- na: euskararen alde, gazte mugimenduan, Amalurraren defentsan, ikasle mugimen- duan, kulturean, gaztetxean, udalekuetan, dantzan, kalean, urrunean... Zuei, eredu zaretan horiei.

**Arrasate**  
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantza Lagunilla  
Izaskun Boinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaiñarain  
Ane Berebizbar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 11**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- ZAPATUA, 12**  
Amezua, Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74
- DOMEKA, 13**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 14**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09
- MARTITZENA, 15**  
Español, Araba etorb. 17 ..... 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 16**  
Azkoaga, Ferrerías 1 ..... 943 79 15 15
- EGUENA, 17**  
Corcuera, M. Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 18**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Iguatorioa ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak ..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelenehantik  
egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan ..... egun osoa
- Arrasate**  
Astelenehantik  
egubakoitzera ..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan ..... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak ..... 943 03 53 11
  - Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua ..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ..... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron ..... 943 77 01 05

**MEZAK**

- |   |  |
|---|--|
| <b>San Joan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)   | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>11:00 San Isidron (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)                               |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)   | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)<br>Domeka<br>12:00 (gaztelaniaz)                                       |

**OHARRAK**

**SANTA MARINAKO JAIAK**  
Gaurtik domekara arte Santa Marina auzoan jaiak ospatuko dituzte. Besteak beste, txokolate jana, mariachiak, pilota, mus eta billar txapelketak, areto futbola, meza, puzgarriak, dantzaldia eta beste ekintza asko egongo dira aurten antolatu duten egitarau mardulean.

**SEXOLOGIA AZOKA PLAZAN**  
Gaur, egubakoitza, Pikor Teatro taldeak eta Zanguango taldeak *Al fondo a la derecha* kale-ikuskizuna eskainiko dute. 19:30ean izango da, Herriko Plazan.

**EGUENETAKO ZINEKLUBA**  
Uztailaren 17an, eguenean, *Millenium Mambo* filma emango dute Monterron parkean. 22:30ean izango da, doan.

**DANTZA IKUSKIZUNA**  
Eguaztenean, uztailearen 16an, Lore Gazteak taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du Monterron parkean. 22:00etan izango da. Eguraldi txarra eginez gero, Amaia Udal Antzokian egingo dute.

**ITOITZERA IRTEERA**  
Bihar, zapatua, Itoitzera irteera egingo dute. 09:00etan Arbolapetan bat egingo dute eta autoz joango dira. Edonor joan daiteke.

**AEDrenAGENDA**

**KULTUR ERROTA**  
Datorren egubakoitzean, uztailearen 18an, AEDk Arima Beltza taldearen kontzertua antolatu du. Ferrerías kalean izango da, 22:30ean.

**'EGUNKARIA'-REN ALDE**  
Egunkari berriaren aldeko batzordeak *Berria*-ren aldeko akzioak eta materiala saltzen dihardu. Kalean aurkituko dituzu mahaiak.

**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibal, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Giza hezurak azaldu ziren Roneoko lanetan**


Roneoko etxe berrietako lanak egiten zebiltzala, langileek giza hezur batzuk aurkitu zituzten, bi metro inguruko sakoneran. Ertzaintzak epaitegiaren esku utzi zituen hezurak, eta auzitegiko medikuak hezurak XVIII. edo XIX. mendekoak izan zitezkeela ondorioztatu zuen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Mazpillunia"*

Mailatua, maspildura. —Ezkerreko aldiari dauka mazpillunia kotxiak.



GORKA ORTEGA

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Anorexiaren gaineko testigantza-liburua**

Amaia Arroyo arrasatearrak 20 urte besterik ez du, baina dagoeneko liburu bat idatzi du: *Yo contra yo. La cara oculta de Anna*. Anorexiaren diharduen liburuan Amaiak bere bizipenak kontatu ditu, eta hasieran egutegi zena laster erosgai izango den liburu bilakatu da. Amaiak, baina, ez du negozio egitea helburu; anorexia zer den barrubarrutik azaldu gura izan du, eta hala egin du asteon irratan. Zapatuan eta domekan, 11:00etan entzun dezakezue.



**Aitor Mantxola zinemagilearekin**

*Uda giroan* saioan, oporretan eta lanean dabiltzan lagunak elkarriketatzen ditugu, eta asteotan Madrilen film bat egiten dabilen Aitor Mantxola zinemagilearekin egongo gara. Oñatiarra da jaiotzez eta urtetan dabil zinemagintzan lanean. Argazki zuzendaria da; hau da, besteak beste, kamerak zer jaso behar duen erabakitzea da Aitorren lana. Eguenean, 10:15ean, telefonoaren bitartez bada ere, *La mirada violeta* filmaren filmaketaraino joango gara.

**HAUGIROA!**

MINIMOA	10 °C
Egubakoitza, 4	
MAXIMOA	31 °C
Martitzena, 8	
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	23 °C	15 °C	0,2 l/m²
Eguena, 3	23 °C	15 °C	- l/m²
Egubakoitza, 4	24 °C	10 °C	- l/m²
Zapatua, 5	23 °C	13 °C	- l/m²
Domeka, 6	22 °C	17 °C	- l/m²
Astelehena, 7	21 °C	17 °C	- l/m²
Martitzena, 8	31 °C	18 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
- 09:00-11:00 **UDA GIROAN Albistek.** Elkarrizketak. Hondartzen, igerilekuen eta urtegien egoera. Eguraldi iragarpena. Udako Euskal Unibertsitatea. Agenda.
- 11:05 **Musika.**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi laburra.**
- 14:00 **UDA GIROAN errepikapena.**
- 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- ZAPATUA**
- 11:00 **Asteko elkarrizketak:** Amaia Arroyo, Alvaro Arrizabalaga arkeologoa, Naiara Bengoa Ginean, Turismoa Debagoienan...
- DOMEKA**
- 11:00 **Asteko elkarrizketak**

## ASTEABIHITZETAN

### Minbizia duten umeen topaketa

Gipuzkoako eta Arabako minbizia duten umeen gurasoen elkarteko kideek topaketa eguna izan zuten joan den zapatuan Untzillan. Goizeko hamar eta erdietan elkartu ziren, eta hamaiketako egin ondoren meza izan zuten. Elizan Aretxabaletako abesbatzak abestu zuten, eta elizkizun hunkigarria izan zen.

Orain dela hamar urte hasi ziren topaketa horiek egiten. Aspaldian ikusi ez dituzten lagunekin elkartzen dira, eta eguneroko bizimodu gogorretik aldentzeko bidea da. Zapatuan laurogeita bost familia elkartu ziren Untzillan.

### 'Busti zaitez' kanpaina

Eugenia Epaltza Fundazioak Esklerosi Anizkoitzaren gaineko kanpaina egin zuen joan den domekan, *Busti zaitez* lelopean. Kanpaina horrek seigarren aldia du aurtengoa, baina lehenengo aldia da Arrasaten egiten dena.

*Busti zaitez* kanpainak helburu nagusi bi izan ditu: alde batetik, gaixotasunaren berri eman eta jendea sentsibilizatzea; eta bestetik, Esklerosi Anizkoitza dutenei zerbitzu hobek eman ahal izateko dirua lortzea. Euskal Autonomia Erkidegoan hiru mila lagunek dute gaixotasun hori, eta gazteei eragiten die gehienbat.

### Mankomunitatearen txostena

Mankomunitatea arduratzen da hondakinen kudeaketaz. Horrela, azken bi urteotan egindako lanaren emaitzak jasotzen duen txostena kaleratu berri du Mankomunitateak.

Txosten horren arabera, geroago eta zabor gutxiago sortzen dugu etxean, eta geroago eta gehiago birziklatzen dugu. Apurka-apurka ohitura bihurtzen dabil beira, papera eta birzikla daitezkeen beste gai batzuk gainerako zaborretik bereiztea. Horri esker, zabor kopuruak behera egin du.



### Mondragoetarrak Tourrean

Uztailaren 19tik 21era bitartean, ibarreko ehunka lagun Pirinioetara joango dira, ziklista euskaldunak animatzera. Pirinioetara joan gura duenak Lizarralde Kirolak dendan eman behar du izena. Astean barrena oraindik 20 lagunendako lekua zeukaten; hortaz, animatu!



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Zeinek eramango du bizikleta?

Lotsagarria izan da azken egunotan Madrilgo politikari eta kazetari batzuek Tourrean euskarak presentzia edukitzearen gainean sortu duten iskanbila. Are gehiago, azkenean Tourreko zuzendariak, Jean Marie Leblanc-ek, onartu egin ditu lotsabako horien eskaerak, eta Tourrak Iparraldean egingo dituen etapetan antolakuntzak ez

du euskara erabiliko. Triste da benetan, euskara erabiltzeko eskaera Batasunak egin zuen argudioarekin -Frantziako Estatuan alderdi hori guztiz legezkoa da, gainera- halako erabakiak hartzea, eta orokorrean denok men egitea. Ezker abertzalea legez kanpo gelditu den sasoi hauetan, beste alderdi batzuek erantzukizun handiagoa hartu

beharko lukete. Izan ere, Tourrak Iparraldean euskara erabiltzea guztiz bidezkoa da, inori inolako zalantzarik sorrarazi beharko ez liokeena.

Honako testua idazteko unean, Tourreko zuzendaria eta beste hainbat talde elkarrizketatan dabilta. Ea benetako arazoa ez den kontu horri konponbidea aurkitzen dioten. Berba egitea eta adostasun minimo batera heltzea besterik ez da behar.

## ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

### HEMEN DAUDE SAN FERMINAK ETA TXATXILIPURDIKO UDALEKUAK!

Uztailaren hasierarekin batera, Txatxilipurdi elkar-teak urtero antolatzen dituen udalekuak heldu dira. Arrasateko 300 bat ume eta gaztetxok uztailan herrian bertan hainbat ekintza egin ahal izango dituzte. Beste batzuek, osterara, udalekuak Arrasateetik kanpo egingo dituzte. Txatxilipurdiko uda-

lekuen hasieran, urteroko ohitura bilakatu da San Fermín egunean entzierro txikia egitea. Aurten ere horrela egin dute. Joan den astelehenean, udalekuean dabilzan ume eta gaztetxo mordoa Herriko Plazan batu, udaletxeko balkoitik pregoia esan, San Fermín abestu eta entzierroa egin zuten. /I.B.

# HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

## OSORIK PUB


Ignazio Zuloaga 4  
ARRASATE

## Monte taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

## UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



Hamalau lagunek jardungo dute indusketa lanak egiten; uztailearen 25era arte ibiliko dira Arrasaten.

GOIATZ ARANA

ARKEOLOGIA/ Leze Txiki

## Leze Txikin indusketa lanak egiten hasi dira

U.M.

Beste urtebetetz, hasi dira Leze Txikin indusketa lanak egiten. Astelehenean (hilak 7) hasi zituzten lanok eta uztailearen 25era arte jardungo dute aztarna bila. Hamalau lagun etorri dira aurten, guztiak ere unibertsitateko ikasleak. Alvaro Arrizabalaga dute gidari.

Historia, Arkeologia, Antropologia eta Medikuntza ikasten dabilzan ikasleak daude Leze Txikin astelehena ezker. Euskal Herrikoak dira gehienak, baina badira Espainiako zenbait lekutatik etorri direnak ere.

### LANAK ABIARAZITA

Motel hasi dira lanean; Alvaro Arrizabalaga arkeologo oñatiarrek azaldutakoaren arabera, urtean sedimentu asko pilatzen da, sedimentu buztintsua; eta, hasieran urarekin bigundu behar izaten dute, lanean hasteko.

Edozelan ere, dagoeneko hasi dira lanean. Aurten bost metro eta erdiko sakoneran jardungo dute, sei metrora iristeko asmoarekin (gutxi gorabehera orain dela 50.000-60.000 urteko mailetan). Oraingo hezurrak aurkitu dituzte, baina inolako sorpresa barik. Dena dela, aurreantzean aztarna gehiago aurki-

tuko dituztela uste du Alvaro Arrizabalagak. Hain zuzen ere, honakoa azaldu dio Goiena Teletistari: "Guretako onena sorpresaren bat aurkitzea izango litzateke; adibidez, beste gizaki baten hezur fosila".

### ZAZPI URTEKO LANA

1996an hasi ziren Leze Txikin indusketa lanak egiten. Eta aurkituntza garrantzitsuak egin izan dituzte urteotan. Helburua da bederatzi metrora iristea indusketa lanetan. Baina horretarako, beste hiruzpalau urte beharko dituzte, betiere, ezustekorik ez badute.

## Oraingo agintaldian Udalak batzorde gutxiago izango dituela aditzera eman dute

U.M.

Legeak esaten duen azkeneko egunean, uztailearen 21ean, egingo du Udalak, ia seguru, antolamenduari dagokion osoko bilkura. Horren harira, batzorde gutxiago egongo direla aurreratu du alkateak.

Aldaketak ikusiko ditugu datorren agintaldian Arrasateko Udalean. Besteak beste, batzorde gutxiagorekin egingo du lan Udalak. Hala aurreratu dio Inazio Lakuntza alkateak Arrasate Irratiari. Horren arabera, gaur egun 13 batzordek osatzen dute Udala, baina litekeena da kopurua zazpi batzordetara murriztea.

### ASMOAK ETA BIDEAK

Edozelan ere, hori guztiori datoren osoko bilkuran zehaztuko dute. Legeak ezarritako epea uztailearen 21ean bukatuko da, eta litekeena da udalbatzarrak azken egun horretan egitea Arrasaten udal antolamendua zehazteko batzarra.

Inazio Lakuntza alkatearen asmoa da Ezker Batuarekin eta Aralarrekin osatzea datozen lau urteotarako Gobernu batzordea. Eta, besteak beste, hori egiteko batzar bi egin gura ditu alderdi horiekin: bata oraingo astean egin dute, martitzenean, Oñatin; eta bestea astelehenean, hilak 14, egingo dute (alderdiez gain, udal teknikariak ere izango dira biga-

rrren batzarrean).

Hala, Lakuntzaren asmoa da Arrasatek dituen egoera eta beharrik aztertu, eta horren arabera, gero zehaztu lan egiteko modua (batzorde informatiboak zeintzuk izango diren, besteak beste).

### ARALAR

Horren harira, Aralar alderdiko Joxe Etxebarria ordezkariak esan du prozesu horretan parte hartzeko asmoa dutela, eta Gobernu batzordearen lehentasunak zehaztu eta gero erabakiko dutela Gobernu batzorde horretan parte hartu edo ez.

### EZKER BATUA

Ezker Batuaren aldetik, berriz,

## Fagor Arrasateren ibilbidea laburtu dute liburu baten

U.M.

Arrasate, kooperatiba baten ibilbidea liburua argitaratu berri du Fagor Arrasate Kooperatibak. Izenburuak esaten duen moduan, enpresa horren historia laburbildu dute Amaia Irizarrek eta Arianne Kareagak.

1956an hasi eta 2002ra arteko bizi-penak jasotzen ditu Arrasate, kooperatiba baten ibilbidea izeneko liburua. Euskaraz eta espainolez idatzita dago, eta oso modu erakargarrian landuta. Laurehun orrialde ditu liburua, zortzi kapitulutan banatuta, guztia koloretan; hala, lehengo eta oraingo argazki ugari ikus daitezke, dokumentu historikoak, grafikoak... Elkarrizketak ere asko dira, eta, zelan ez, kontakizun eta pasadizo ugari daude liburuan. Hain zuzen ere, Fagorko presidente Joxean Alustizak zera dio liburuaren sarreran: "Liburuaren helburua bertan gure bizitza eta

ilusio ugari utzi ditugunon ekintzak eta bizipenak kontatzea besterik ez da".


### BAZKIDE GUZTIEI BANATU, ETA SALGAI

Kooperatibako bazkide guztien artean banatzen dabilta liburua (1.000 lagun baino gehiago); eta Joxean Alustizak azaldu digunaren arabera, hasieran ez zuten salgai ipintzeko asmorik, baina, eskaerak jaso dituztela-eta, dagoeneko salgai dago. Hain zuzen ere, joan den martitzenean (hilak 8) eramán zuten Hire liburu dendara, eta han eros daiteke, 18 eurotan.

Lehen esandako moduan, Amaia Irizar Sainzek eta Arianne Kareaga Irazabalbeitiak idatzi dute liburua. Biak hala biak HUHEZIKO Enpresarako Humanitatean lizentziadunak dira. Lanki Ikertegiaren arduradun Jon Sarasuaren zuzendaritzapean egin dute lana. Urte bi eman dituzte liburuan idatzi beharreko guztia lantzen.

# Arrasate

Kooperatiba baten ibilbidea  
Trayectoria de una cooperativa



Hire liburu dendan bakarrik eros daiteke liburua.

## LABUR

### Mozambiqueko eta Kolonbiako proiektuak berbagai

Datorren astelehenean, hilaren 14an, Kolonbiako San Clemente hiria berbagai izango da Monterronen, Harreman gobernuz kanpoko elkartearen eskutik. Hain zuzen ere, azken urteotan han egiten dabilzan proiektuaren berri emango dute Monterrongo hitzaldian, 19:00etan.

Bestalde, Mozambiqueko Marrupa eskualdeko albisteak izan ditugu oraingo astean; handik etorri den Jose Angel Mikeok Mundukide egiten dabilen proiektuaren gaineko argazki mordoak ekarri ditu. Marrupan dago, besteak beste, Beñat Artzadun arrasatearra.

Joseba Ugalde ordezkariak adierazi du alderdia gertu dagoela Gobernu batzordean sartzeko, badutela horretarako borondatearik, baina behin betiko planteamendua zein den ikusi beharra dagoela azken erabakia hartu aurretik; alderdi bakoitzari kudeatzea tokatuko litzaiokeen batzordeak zeintzuk diren, alegia.

### ALKATEA BAIKOR

Inazio Lakuntza alkatea, berriz, baikor dago orain arteko harremanak ikusita, alderdien jarra ikusita. Eredudisberdina izango dugula aurreratu digu, lehen aipatu dugun moduan, herria zelan ikusten duten hala antolatu gura duelako Udala.

## ELKARRIZKETA

AMAIA ARROYO/IDAZLEA

# “Pertsona bat ez da zertan argal-argal egon behar anorexia izateko”

ARRASATE IRRATIA

**L**aster liburu berri bat izango dugu esku artean. Amaia Arroyo arrasatearra idatzitakoa da eta oso bizipen latzen berri ematen digu. Anorexia gaixotasuna dauka Amaiak; hori gainditzeko egin-dakoak kontatu ditu liburuan:

**Oraindik ere anorexia daukazu diozu, baina, itxuraren-gatik, behintzat, ez da atzematen...**

Gizartean esaten da oso argal daudenek bakarrik dutela anorexia, baina, hori ez da guztiz egia. Lehenengo esan beharra dago anorexia ez dela gorputzeko gaixotasuna, buruan dagoela. Ondorioz, pertsona bat ez da zertan argal-argal egon behar anorexia edukitzeko; hori garrantzitsua da norbera gaixorik dagoela konturatzeko.

**Hain zuzen, norbera gaixorik dagoela jabetzea da pausorik gaitzena...**

Bai, liburuan kontatu dut hori dela aurreneko pausua. Baina, pauso horretarako bidea nahiko latza da. Ingurukoek esaten dizkizute gauzak, baina, beti pentsatzen duzu: niri ez zait gertatu behar... Azken baten, horrelakotan jakin behar dena da besteei entzuten, besteen aholkuak jasotzen, elkarteetara jotzen...

**Yo contra yo, la cara oculta de Anna da liburuaren izenburua; anorexiarekin norbera dela norberaren etsairik gogorrena diozu...**

Anorexia duzunean, esango nuke buruan bi alde daukazula: batek arrazoitu egiten du, eta beste sentimenduengatik gidatzen da. Etengabeko eztabaida ematen da bien artean: *Yo contra yo*, azken baten. Hori da laguntzarekin gaitzen dena.

**20 urte dituzu, noiz hasi zen anorexiaren kontu hau...**

Orain dela hiruzpalau urte, baina, ez zen izan hasi eta berehala anorexian erori. Gutxikako kontua izan zen. Potolotxo nengoen (84 kilo pisatzen nituen), dietak-eta egin nituen, baina, dieten emaitzak nahikoa ez zirela-eta, beste bide batzuk (ez oso onak) hartu nituen. Orain dela urte eta erdi murrizketa piloa egiten hasi nintzen. Ariketa fisiko asko. Lana tabernan egiten nuen, eskola partikularrak ematen nituen, unibertsitatera joaten nintzen... makina hutsa nintzen, eta ez nuen jaten. 26 kilo galdu nituen. Batez ere inguruko jendearengatik konturatu nintzen egoerarekin; familiarengatik eta lagunengatik. Umore aldaketak nituen; horrek familia eta ingurukoak kezka arazi zituzten, eta hasi ziren kontuz ibiltzeko esaten.



U.M.

**“Liburua saltzeagatik lortuko ditudan etekinak ACABEri emango dizkiot”**

Hasieran ez duzu onartzen, baina, kointzidentzia asko ikusten hasten zara, arduratzen hasten zara...

**Eta zelan esaten da kito horrelakotan?**

Nire kasuan lana bukatu eta etxean bazkaltzen hasi behar nintzelako. Sentitzen nuen ezin nintzela plater baten aurrean eserri, janez gero potolatu egin behar nintzelako. Kosta egin zitzaidan laguntza eskatzea.

**Orain zuk gura duzu laguntza eskaintzea, liburuarekin...**

Bai. Gaizki egon nintzenean horrelakorik izango banu oso lagungarri izango litzaidake.. Txarto nagoenean idazteko ohitura daukat eta horrela hasi nintzen. Gero, pentsatu nuen akaso pre-

**“ACABEra joateko esango nieke gaixoei eta haien gurasoei; niri asko lagundu didate ACABEn”**

bentziarako baliabide bat izan daitekeela; hala, aurrera egin nuen, eta nire kontu (inoren diru laguntza barik) liburua argitaratzea erabaki nuen. Sekulako zuloa sortu dut neure poltsikoan, baina, aterako dugu zerbait. Nire ustez merezi du.

**Biluztu egin zara liburuan...**

Bai, liburuak hiru zati ditu. Lehenengoan niri gertatutakoa kontatu dut; bigarrenean sentitzen denaren kontakizuna egin dut (errudun sentitzen zarela...); eta hirugarrenean gizartean dagoenaren hausnarketa egin dut.

**Noiz izango dugu liburu?**  
Uztailaren 17an iritsiko da Arrasatera, eta 22an aurkeztu egingo dut, Udaletxean.

## Euskal preso enbako bakartzea salatzeke ekitaldiak

U.M.

Euskal preso politikoei jasaten duten bakartze egoeraren amaiera eskatzeko ekimenak antolatu ditu Etxerat elkarteak Arrasaten. Datorren uztailearen 20an izango dira; besteak beste, kale bilkurak izango dira.

Herriko alderdi politikoen talde eragileengana, herritar eza-gunengana eta antzekoengana jo dute Etxerat elkarteak bakar-tzearen kontra jarduteko elkartasun bila. “Senide presoek bizi duten egoera jasangaitz hau sala-

tu eta amaiera ematea eskatu nahi du” Etxerat elkarteak. Eta, horretarako kale bilkurak antolatu ditu datorren uztailearen 20rako, domeka.

**ALOR GUZTIETAKO ORDEZKARIAK**  
Seber Altuben izango dira. 16:00etan sindikatu etako ordezkariekin hasi eta 19:30ean alderdi politikoen ordezkariekin bukatuko dituzte. Tartean, herriko musika taldeek, kirol taldeek, euskara taldeek, talde eragileek eta pertsona ezagunek parte hartuko dute. Horren ostean, Seberren hasita manifestazioa egingo dute.

## LABUR

### Sexologia Zerbitzua azoka plazan izango da uztaileko egubakoitzetan

Sexologia Bulegoko langileek eskaintzen duten zerbitzua herritarrei gerturatzeko erabaki dute. Hori lortzeko, uztailean mahaia ipiniko dute azoka plazan. Egubakoitzetan egongo dira han, 10:00etatik 12:00etara. Hala, alde batetik, Sexologia Bulegoaren berri zuzen-zuzena emango dute; eta horrez gainera, materiala eramango dute. Hiru motakoa: osasunarekin eta prebentzioarekin lotutako esku-orriak; orain opor garaia datorrenez aisialdia aprobetxatzeko irakurgaiak gomendatuko dituzte (adin guztietarakoak: ipuinak, eleberriak...); eta antisorgailuen taula banatuko dute gura dutenen artean.



### Jaiak Santa Marinan

Egubakoitzean hasi eta domekara arte jaietan murgilduko dira Santa Marinan. Denetarik izango dute. Besteak beste, egubakoitzean, 23:00etan, San Juanetan horrenbesteko arrakasta izan duten Mariachi Emperadores taldeak saioa eskainiko du. Zapatuan, 17:30ean Erro enpresak antolatutako pilota partiduak jokatuko dituzte Obenerrekako pilotalekuan. Eta, 19:30ean, Agerren *cojonudos* delakoen dastatzea izango da. Bukatzeko, domekan, umeendako ekitaldi ugari izango dira: goizean parkea (puzgariak...); eta, arratsaldean parkea, txotxongiloak eta magoa.



## GARAGARTZAKO TXERRIHANKA TALDEAK TELLAMENDIRA IGOERA

**J**oan den zapatuan, Garagartzako Txerrihanka taldeko 85 lagun Tellamendira igo ziren. Goizean goiz elkartu ziren Garagartzako plazan, eta giro ezin hobean Tellamendirako bidea hartu zuten. Garagartzako Txerrihanka taldeak urtero egiten du irteera hori. Zapatuan, Tellamendiko gailurrera iritsitakoan, taldeko kide zen Begoña Herizi omenaldia egin zioten, eta gero, Garagartzarako bidea hartu zuten. Baina ez pentsa etxera joan zirenik, ezta gutxiago ere! Izan ere, Garagartza auzoko lokalean bazkari ederra egin zuten.



## TXATXILIPURDIKO GAZTETXOAK ARRASATE IRRATIA BISITATZEN

**U**ztailean Txatxilipurdiko umetxoek bisitaldi ugari izaten ditugu. Urteko sasoi honetan umeak udalekueetan dabilta, eta udalekueetan zer egiten duten kontatzera etortzen dira gurera. Urtea eskolan eman eta gero, gaztetxoek ederto pasatzen dute oporretan. Opor luzeak izaten dituzte, gainera, eta hilabete horietan guztietan umeak entretenitzea ez da batere erraza izaten. Oraingo hamabostaldian Txatxilipurdikoe-na da lan hori, eta a zer-nolako lana, gainera!

## ERROMERIA ERROZIEROA ARRASATEN

**D**omekan, Al Andalus kultura elkarteak erromeria errozieroa egin zuen, eta Euskal Herriko beste herri batzuetako andaluziarrak ere izan ziren erromerian. Hala, Andaluziako janzkera tipikoarekin,

hango dantzak, musika, kantuak eta gastronomia izan ziren nagusi Eroski ondoko zelaian. Arrasateko eta inguruetako herritarrek erromerian parte hartzeko aukera izan zuten.





ARRASATEARRAK AUSTRIAKO IRONMAN PROBAN

# "Proba amaitzeko derrigorrezkoa da etxeko lanak ondo eginda eramatea"

Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldeko zortzi lagun izan dira Austriako Ironman proban; tartean, Zigor Jiménez eta Zuhaitz Ezpeleta mondragoetarrak

XABIER URZELAI

Izenak ondo dioen moduan, kirol proba gogorrenetakoa da Ironman delakoa. Arrasaten *altzairuzko* bi mondragoetar ditugu: Zigor Jiménez eta Zuhaitz Ezpeleta. Martitzen gauean iritsi ziren Arrasatera, eta euretako batekin egoteko aukera izan dugu, Zigorrek.

Ekainaren 30ean Antxintxika Debagoiena Taldeko zortzi lagun Austriara abiatu ziren. Furgoneta egin zuten bidaia, eta martitzen ilunkean iritsi ziren Austriara. Proba uztailaren 6an izan zen, joan den domekan, eta bost egun zituzten probaren ibilbidea ezagutu eta apur bat entrenatzeko. Entrenamendua, baina, egina zegoen, azken bost hilabeteetan jo eta ke ibili dira-eta. "Proba gogorra da, baina gogorragoa egiten da aurreko hilabeteetako entrenamendua, diziplina mantentzea", dio Zigorrek.

Proba gogorra izan dela dio Zigorrek, eta ez da gutxiagorako, 4 kilometro igeri, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika ez dira-eta egunero egiten. Bi mondragoetarrek lan txukuna egin dute, eta helburu nagusia proba amaitzea bazen ere, azkenean uste nuen baino denbora laburragoan egin dute proba: "Nik hamaika ordu egiteko asmoa nuen, eta azkenean hamar ordu eta zortzi minutuan egin dut. Zuhaitz hobeto ibili da, hamar ordutatik jaitsi da-eta; bederatzik ordu eta erdian egin du, eta hori marka polita da".

**DOSIFIKAZIOA, EZINBESTEKOA**  
Hamar ordu jo eta ke ibiltzea ez

*"Proba gogorra da, baina gogorragoa da aurretik egin behar den entrenamendua"*

*"Probak aurrera egiten zuen neurrian, ambulanzia sirena gehiago entzuten genituen"*

da txantxetako kontua: "Hemengo triatloietara gaude ohituta, baina Ironman proba bestelakoa da. Luzea da, eta dosifikatzen jakitea oso garrantzitsua da. Nekea ere bestelakoa da, iristen da momentu bat hustuta sentitzen zarela, indar gabe zaudela, eta hor buruak agintzen du aurrera egiteko".

Helmugara iristean sentsazio bereziak bizitzen dira: "Gutxigatik ez nintzen negarrez hasi. Ni ondo iritsi nintzen, baina jendea lurrera erortzen zen. Probak aurrera egiten zuen neurrian, gero eta ambulanzia sirena gehiago entzuten zen, eta helmugan mila bider galdetzen zizuten ea ondo zeunden ala ez".

Dituen asmoen berri ere galdetu diogu Zigorri: "Orain deskantsatzea besterik ez dut buruan, baina, seguru, beste Ironman bat egingo dudala, gustura ibili naiz-eta".



XABIER URZELAI

Zigorrek deskantsatzea du buruan, baina kirol apur bat egin behar du, bat-batean kirola egiteari uztea txarra da-eta.

## Beste maila bateko triatloiak

Munduko Ironman garrantzitsuena Hawaiiakoa da. Kontatzen dutenez, Hawaiiin zeuden *marine* batzuen burutazioa izan zen proba hori. Garai hartan (1978) irletan egiten ziren hiru proba garrantzitsu elkartzera erabaki zuten: igeriketako *Waikiki Roughwater Swim* proba (3,8 kilometro), *Around-Oahu Bike Race* txirrindularitza proba (180 kilometro) eta *Honolulu Marathon* maratoia (42,125 kilometro). Horrela sortu zen

Ironman proba. 1978an izan zen hori, eta lehenengo proban 15 lagunek hartu zuten parte. Hamabi lagun iritsi ziren helmugara, eta ordutik, urtero-urtero egin izan da proba. Hasieran egunkariak, eta telebistak gero proba hori famatu egin zuten. Egun, munduko leku askotan egiten da Ironman proba, eta milaka kirolarik hartzen dute parte proba horietan. Austriako proban 1.400 lagun inguru izan ziren, baina denak ez ziren helmugara iritsi.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

## ELKARRIZKETA

ISA CASADO/ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIAN BIGARREN, EMAKUMEETAN

**“Ez nuen espero Aizkorriko mendi maratoian bigarren izatea”**

XABIER URZELAI

Isa Casadok espero ez zuena lortu du: Zegama-Aizkorri mendi maratoian lehendabizikoz esku hartu eta bigarren postuan iristea helmugara. Proba zortzi orduan egiteko asmoa zuen Isak, eta bost ordu baino ez zituen behar izan.

**Lehendabizikoz mendi maratoni baten esku hartu, eta bigarren geratu.**

Bai, eta ez nuen espero horrelakorik. Egia esan, uste nuen baino gogorragoa izan da, baina espero nuen baino askoz ere denbora laburragoa behar izan dut proba egiteko. Zortzi orduan egiteko asmoa nuen, hori zen hasierako helburua, eta azkenean bost ordu eta erdian egin nuen proba.

**Zelan bururatu zitzazun proba horretan parte hartzea?**

Joan den urtean Hiru Haundiak mendi proba egin nuen, eta asko gustatu zitzaidan. Hurrengo aste bukaeran Zegama-Aizkorri mendi maratonia jokatu zen, baina oso nekatuta nengoen proba hartan parte hartzeko, belarretatik, gehienbat. Eta hurrengo urterako uztea erabaki nuen. Hain zuzen, ekainean akordatu nintzen joan den urtean esandakoaz, eta izena eman nuen.

**Zer iruditu zaizu proba?**

Zegama-Aizkorri mendi maratonia izugarri gustatu zait, eta proba gogorra izan bada ere, sekulako esperientzia izan da. Nik ez nekien horrelako proba baten parte hartzea zer zen, eta nekatuta nengoen arren, jendea animatzen ikusteak indarra eman zidan. Jende mordo zegoen Urbian gu animatzen, eta hori bizi izateagatik bakarrik merezi izan du. Oso bestelakoa da mendira nor bere kabuz joan edo horrelako proba baten parte hartu. Proba egin aurretik ez nuen esango horren ezberdinak zirenik.

**Entrenamendu berezirik egin duzu?**

Neguan eskiatzen ibili naiz; mendizeharko eskia egiten dut. Ez dakit entrenamendu aproposena izango den, baina seguru laguntzen duela. Korrika, baina, proba hasi baino hilabete lehenago hasi nintzen. Urkulun-eta ibili naiz korrika, eta bestela ere sarritan joaten naiz mendira. Hala ere, ez dut uste proba hori egiteko entrenamendu berezirik egin dudarik.

**Yolanda Santiuste madrildarra, hainbat aldiz Espainiako txapelak izan dena, atzean utzi zenuen.**

Bai, baina nik ez neukan horren berri. Gero, egunkarietan irakurri dut hainbat alditan



XABIER URZELAI

**“Proba gogorra izan da, baina jendearen animuei esker azkarrago joan nintzen”**

Espainiako txapelak izan den neska hirugarren postuan iritsi zela helmugara, baina egunean bertan ez nintzen horretaz konturatu.

**Dagoeneko izan duzu eskaintzarik, ala?**

Bai, Euskadiko Federaziotik deitu didate ea Espainiako Opeanean parte hartu gura dudan galdetza. Espainiako Opeana hiru probak osatzen dute: Zegama-Aizkorri mendi maratoiak, Mulhaceneko mendi maratoiak eta Katalunian egiten den beste mendi maratoni batek.

Irailean izango da Mulhaceneko mendi maratonia, Granadan, baina oraindik ez dut ezer erabaki.

**Ikusi egin behar zer eskaintzen dizuten, ala?**

Hori da. Oraindik ez dugu ezertaz berba egin, baina ikusi egin beharko da bidaiak eta horrelakoak noren kontu izango diren. Oraindik, baina, ez dakit ezer.

**Baiezkoa emanez gero, ardura handiagoa ere izango duzu.**

Bai. Izan ere, mendira edo korrika egitera joan izan naizenez, nik gura nuelako egin dut, eta gogorik ez neukanean etxean geratzen nintzen, lasai asko. Orain argi dagoena da baiezkoa ematen badut gauzak bestelakoak izango direla. Entrenamendu saioak izango ditut, eta seriotasun handiagoarekin hartu beharko dut hau guztia.

**Mondra futbol taldeko Zuzendaritza errelebu bila**

X.U.

Joan den astean, Mondra futbol taldeak urteroko batzar orokorra egin zuen. Bertan, Jose Luis Ezkurra eta Patxi Iartzak urteko balantzea egiteaz gain, gauza bat utzi zuten argi: Mondrak errelebu behar duela, hain zuzen ere.

Urte asko daramatzate lagun bi horiek Mondraren zuzendaritzan, eta atseden hartzeko ordua dela uste dute. Astelehenean Jose Luis Ezkurra Arrasate Irratiari egindako adierazpenetan argi utzi zuen hori: “Guk denbora luzea daramagu hemen, larregi, eta errelebu beharrezkoa da. Taldeak jende gaztea behar du, ideia berriekin”.

Jose Luis Ezkurra eta Patxi Iartzak beste denboraldi bat egingo dute taldearen Zuzendaritzan, baina datorren denboraldia amaitzean taldea uzteko asmoa agertu zuten. Mondraren Zuzendaritzak helburu nagusi bi izan ditu aurretik: batetik, Mondrak duen zorra kitatzea edo, gutxienez, txikitzea. Presidentearen esanetan, datorren urtean taldea uzten duenerako taldea zor barik egotea espero du.

Bestetik, kirol arloan taldeak preferente mailan jokatu du

datorren denboraldian, eta taldeak preferente mailari eusten badio, momentu ona izango litzateke taldea uzteko. Une txarretan Zuzendaritzak taldeari etsi dio eta orain, taldea egoera onean utziko lukete.

**BAZKIDE GUTXI**

Gauza jakina da Mondrak gura baino bazkide gutxiago dituela. 250 bazkide baino ez ditu 24.000 biztanle dituen herriko futbol taldeak. Oñatik, biztanle kopuru askoz ere txikiagoarekin, hiru aldiz bazkide gehiago ditu, eta UDAla ere bazkide pilo dauzka. Hori ez da normala, baina presidentearen esanetan hori aldatzea ez da batere erraza izango, haren esanetan, Arrasateko futbol jarraitzaileek Realak baino ez dute eta buruan.

Datorren denboraldirako, Mondra futbol taldeak bazkide kanpaina berria jarriko du abian, eta ikasleei zuzendutako abonua mota bat jarriko du, erdi prezioan.

Eta albiste onik ere badago: emakumeen taldea datorren denboraldiari begira egoera larrian zegoen, jokalaririk barik, baina azkenean lortu du datorren denboraldirako jokalaria izatea. Eta Jon Loiti izango da emakumeen taldeko entrenatzailea.

## FOTOKIROLA

**Ezin bost metroko jauzia egin**

Jonathan Pérez Salamancan izan zen aurreko aste bukaeran, Espainiako Promesa Mailako Txapelketan, eta arrasatearra bosgarren izan zen. Atleta mondragoetarra bost metroko jauzia egiteko asmoz abiatu zen Salamanca aldera, baina 4,50 metroko jauziarekin konformatu behar izan zen. Atleta arrasatearra arazoak ditu pertika berriekin, lehengoak baino gogorragoak dira-eta. Pertika horiei neurria hartzen dienean, baina, bost metroak atzean geratuko dira. /X.U.

# Uda partean Udalara igotzeko aitzakia bat baino gehiago eskaintzen du Uxartek



**U**dala auzoan dago Uxarte, Udalatxi begira, eta uda partean aukera asko eskaintzen ditu: taberna, jatetxea, ostatua eta igerilekua, hain zuzen ere. Orain dela 35 urte zabaldu zuten Uxarte taberna. Orduan, jatetxe txiki bat jarri zuten, baina denborarekin, jatetxea handitu, logelak jarri eta igerilekua egin zuten. Negu partean, eguaztenetan itxita egoten da Uxarte, baina orain eguneroko dago zabalik. Ondo bazkaltzeko edo afaltzeko asmoa baduzue, Uxarteko jatetxean aukera paregabea izango duzue: perretxikoak, menestrak, okela egerra eta arraina. Hori da eurek azpimarratu gura izan dutena, baina gainerako guztia ere ederra dago. Horrez gainera, eguneko menuak ere ematen dituzte. Beste barik, sabela ondo betetzeko asmoa izanez gero, Uxarte da aukera onena.

## UDALAN LO EGIN

Leku lasaia da Udala auzoa, eta han lo egitea plazer handia da. Plazer hori Udako baseritarrena da, baina Uxarteko ostatuak aukera hori beste edozeini ere eskaintzen dio. Horretarako, Uxarten bost logela dituzte, guztiak ohe handiarekin (bikotearendako), komunarekin eta telebistarekin. Leku aproposa da aste bukaera mendian pasatu eta gero bertan deskantsatzeko.

Baina lasai lo egitea eta ondo jatea ez da Uxartek eskaintzen duen guztia: Uxartek igerilekua ere badu, eta uda partean Arrasateko eta ibarreko lagun asko joaten dira Udalara, igeri apur bat egin eta eguzkia hartuz goiza edo arratsaldea pasatzera. Uxartek igerileku bi ditu: bat, txikia, 7x12,5 metrokoa, eta beste bat, handia, 25x12,5 metrokoa. Igerileku bi horiez gain, eguzkia hartzeko lekua eta taberna ere esku-eskura izango dituzue.

Igerileku gutxi daude Uxarteko modukoak, batez ere igerilekua non dagoen kontuan hartzen badugu: Udalan lo egitea plazer handia bada, zer esanik ez bertan bainu bat hartzea, mendi artean.



XABIER URZELAI

Ondo bazkaldu, mendian osteratxoa egin eta bainu freskagarri bat hartu eta gero, Uxartek atseden hartzeko aukera eskaintzen du.

Uxarteko igerilekua orain dela 29 urte ireki zuten, eta urte horietan guztietan inoiz ere ez dute kalerik egin; urtero zabaldu dute igerilekua. Orain dela lau urte berritze lanak egin zituzten: igerilekua goitik behera aldatu behar izan zuten, eta, gaur egun, igerileku batek izan behar dituen baldintza

guztiak betetzen ditu.

Uxarteko igerilekua San Juanetan ireki zuten, eta iraileko bigarren hamabostaldira arte egongo da irekita. Ordu-tegiari dagokionez, igerilekua 09:30ean irekitzen dute, eta 20:00etan itxi. Azken baten, uda partean aukera paregabeak eskaintzen ditu Uxartek.

**Uxarteko igerilekua iraileko bigarren hamabostaldira arte egongo da irekita, 09:30etik 20:00etara.**




## UXARTE

JATETXEA

OSTATUA

IGERILEKUA



DANTZA/ Datorren eguaztenean dantza ikuskizuna egingo dute Monterron parkean

# Lore Gazteak taldeak ikasturte bukaerako dantza ikuskizuna egingo du Monterronen

IKER BARANDIARAN

Eguaztenean, uztailearen 16an, Lore Gazteak taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du Monterron parkean. 22:00etan izango da, eta dantza taldeko berrogeita hamabost lagunek hartuko dute parte. Eguraldi txarra eginez gero, Amaia Udal Antzokian egingo dute.

Uztailearen 16an, eguaztenean, Lore Gazteak taldeak dantza ikuskizun berezia eskainiko du Monterron parkean. Ekitaldi hori antolatzea azken zortzi urteotako ohitura dute, eta ikuskizun horren bitartez helburu nagusi bi bete gura dituzte: batetik, herri-tarrei taula gaineko dantza ikuskizuna eskaintzea; eta, bestetik, taldearen ikasturte amaiera San Juanetatik uztaileara arte luzatzea.

## EUSKAL HERRIKO HAINBAT DANTZA

Ikuskizun horretan Lore Gazteak dantza taldeko berrogeita hamabost lagunek hartuko dute parte: nagusiek, gazteek eta umeek. Horiez gainera, Lore Gazteak

taldeko txistulariek, eta Arrasateko gaitariek ere hartuko dute parte.

Ikuskizun horretan Euskal Herriko hainbat zonatako dantzak eskainiko dituzte: besteak beste, Arabako Mendiko Soinua, Gasteizko Dantza, Arabako *Potpourri-a* -Guardiakoa, batez ere-, Gipuzkoako Aurrekua, Sorgin Dantza, Nafarroako Sagar Dantza, Bizkaiko Banakoa, Binakoa, eta beste batzuk.

Bestalde, Lore Gazteak taldeko partaideen esanetan, urteroko kezka izan ohi da ikuskizun hori zelan bukatu. Eta kezka hori ekiditeko asmoz, ideia berria izan dute: hain zuzen ere, ikuskizuna bukatzeko muntaia prestatu dute. Muntaia horretan antzerkia, interpretazioa, dantza soltea eta beste elementu berri batzuk sartuko dituzte.

## GIZON GEHIAGOREN PREMIA

Lore Gazteak taldean dantzari gazteen harrobi ona duten arren, nagusien taldean gizon gehiagoren premian daude. Azkenaldian, taldeak osatzeko gizon kopuru justu samarra izan dute.



Lore Gazteak dantza taldeak 34 urte ditu, eta gaur egun ehun bat partaide dauka.

## ELKARRIZKETA

EUGENIO DELGADO/MAC JEARA'S BAND TALDEKO MUSIKARIA

# “Kalejiretan ikusleekin nahasten saiatzen gara; dibertigarriak izaten dira”

I.B.

Datorren egubakoitzean, uztailearen 18an, Donostialdeko Mac Jeara's Band taldeak kalejira egingo du Arrasaten. Taldea zortzi musikaririk osatzen dute, eta *dixie* estiloko musika egiten dute. Kalejira 19:30ean irtengo da.

## Noiz eta zelan sortu zenuten Mac Jeara's Band?

Orain dela hiru bat urte, Donostiako Jazzaldiko kontzertuak ikustera joaten ginen lagun talde bat elkartu, Donostialdekoak eta musikariak guztiok, ondo pasatzeko musika taldea egitea erabaki genuen. Entseatzan hasi, abesti sorta prestatu, eta jotzen hasi ginen. Hasieran kantu instrumentalak egiten genituen. Geroago, berriz, neska ahotsa sartzea erabaki genuen.

Zeintzuek osatzen duzue taldea, eta nondik dator izena? Mikel Matek klarineta jotzen

du, Roberto Pachecok saxo tenorra, Alfonso Masachek tronpeta, Carlos Escudero tronboia, Eugenio Delgado helikoia, Ander Barrenetxeak bateria, Jokin Sukuntzak pianoa eta perkusioa, eta Ainara Ortégak, berriz, abestu egiten du.

Izenaren kontua bitxi samarra da: izenean zortzi partaideon inisialak daude. Horregatik eta irlandar kutsua duelako aukeratu genuen.

## Eta zer nolako ibilbidea izan duzue ordutik gaur arte?

Lehenengo urtean maketa grabatu genuen. Geroago CDA kaleratu genuen, batez ere gure grabazioa argitaratzearen. Hainbat ale saldu ditugu, baina ez gaitu askorik arduratzen. Dezente jotzen dugu, *marching*-ak (kalejirak) eta kontzertuak egiten ditugu, eta herri eta hiri askotan izan gara.

Zuen webgunean diozue *dixie* estiloko musika egiten duzuela... Azal egiguzue zer

den hori...

*Dixie* musika hastapenetako jazz da. Ez da egungo jazz bezain abangoardista. Adibide bat ematearren, Louis Armstrong kanatuak *dixie* estilokoak ziren, baita *Cotton Club*, *Chicago*, *Cabaret* eta halako filmetako musika ere. Ohiko jazz baino entzuterrazagoa eta alaiagoa da *dixie* estiloa. Beste batzuek, berriz, New Orleansko musikarekin identifikatzen dute.

## Hemen, Arrasaten, *marching*-a egingo duzue. Zer eskainiko duzue?

*Marching*-a, gutxi gorabehera, ohiko txarangaren antzeko formatua da, baina jazz ukitu handiagorekin, jakina. *Marching*-ek kontzertuek baino bizitasun handiagoa dute, eta ikusleek parte hartzeko aukera handiagoa dute. Musikariondako dibertigarriagoa da, eta jendearekin nahasten saiatzen gara. Jendeak erantzuten badu, guk ere gehiago ematen dugu.



MAC JEARA'S BAND

E, TXO!

GUREGAIK/ 'SKATE'-AREN GAINEKO FANTZINEA

**GAZTETXEKO BATZARREKOAK MAULERA JOAN DIRA**

Gaur, egubakoitza, gazte batzarreko 20 bat lagun Maulera joan dira. Arrasateko musika talde bi -Spank<sup>2</sup> eta Never Surrender- eta Eskoriaztako Kleenex taldea eramango dituzte, Maulen kontzertua eman dezaten. Domekara arte egongo dira Maulen.

**ARRASATEKO TALDE BAT GAZTEMANIAK LEHIAKETAN**

Aldundiak urtero antolatzen duen Gaztemaniak lehiaketaren zazpigarren aldira Arrasateko musika talde bat aurkeztu da: Denial. Beste 27 talderekin lehiatuko da, eta, finalista geldituz gero, Gaztemaniak-eko CD bilduman kantu bat sartuko du. Denial taldea 2000n jaio zen, eta hauek osatzen dute: Roberto (bateria), Esteban (baxua), Alex (gitarra), Iban (gitarra), Josu (ahotsa) eta Luis (teklatuak). *Death metal* musika egiten dute.

**EUSKO JAURLARITZAREN BEKA DEIALDIA**

Merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko 25 beka emango ditu Jaurlaritzak. Bekak lortzeko beharrezkoa da EAEko biztanle izatea, 32 urte baino gutxiago izatea eta bekarekin lotutako unibertsitate titulua izatea. Uztailaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira eskaerak. Informazio zabalagoa: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**OPORRETAKO ARGAZKIEN LEHIAKETA**

Ermuko kultura etxeak oporretako argazkien lehiaketa antolatu du. 1973 eta 1988a bitartean jaiotakoek har dezakete parte. Argazkiek koloretan izan beharko dute, eta lanak aurkezteko epea urriaren 9an bukatuko da.

**Kalean dago 'Nothing Without' fantzinearen azken zenbakia**

IKER BARANDIARAN

*Nothing Without* fantzinearen bederatzigarren zenbakia kalean dago. Arrasaten egiten duten fantzine horretan *skate*-aren eta *hardcore* musikaren gainean idazten dute, eta geroago eta txukunagoa da.


Azala koloreetan egin dute, eta geroago eta itxura txukunagoa dauka. Hala ere, edukien ildo batetikoa da: *skate*-ari eta *hardcore* musikari eman dizkiote orrialde gehienak.

Ibarrean geroago eta zale gehiago dituen *skate*-ari dagokionez, besteak beste, Eder Antia aretxabaletarrari elkarrizketa egin diote; Arraska taldeak Musakolako kiroldegian antolatu zuen

*Ibarreko 'skate' eta 'hardcore' musika zaleendako erreferente bihurtu da fantzinea*

Skateskola delakoaren gaineko erreportajea idatzi dute; eta patinetearren gainean egin daitezkeen hainbat trukuren argazkiak argitaratu dituzte...

Musikari dagokionez, Italiako Raw Power talde mitikoari elkarrizketa egin diote; AEBetako Circle Jerks taldearen gaine-



ARRASATE PRESS

Fantzine horrek itxura aldetik asko hobetu du, eta azala koloreetan egin dute.

ko artikulua idatzi dute; eta kontzertuen eta diskoen gaineko iruzkinak egin dituzte.

Fantzine dotore hori Arrasateko hainbat tabernatan dago salgai, 1,5 eurotan.

LOTSABARIK/ Imanol Gallego

**"Orain arte ezerk ez dit lotsarik eman"**

IKER BARANDIARAN

Imanol Gallego antzerki lanetan ibiltzen da aisialdian. Azken asteotan Txatxilipurdik prestatu duen *Top Manta* ikuskizunarekin buru-belarri dabil. Hala ere, etenaldia egin eta galdetegiari erantzun dio.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Lehenengo, suhiltzaile; gero, ertzain; baita mediku ere. Azkena astronauta izan zen. Baina sasoi hartan kohete batek eztanda egin zuen, eta iritzia aldatu nuen.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ahal izango banu, Euskal Herritik kanpo bizi izango nintzateke, hiri handi baten. Eta baliteke bikotekidea izatea... Auskalo!

• Zein da, zeure iritziz, adin ideala?

Adin bakoitzak ditu alde onak eta txarrak, guztiek dute xarma.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Nire inguruan dagoen jendeari; horiei ematen diet lehentasuna, merezi dutelako.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Momentuan egiten nabilena ondo egiteak. Etorriko da hurrengo.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Oso gauza gutxi. Orain arte ezerk ez dit lotsarik eman.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Lagunen ondoan egoten ahalgintzen naiz, baina oso burugorria naiz.

• Zure gorputzeko atal gustukoena?


Ilea, nahiz eta burujabea den eta gura duena egiten duen.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Begiradari eta ahoari; hortzei, batez ere.

• Arrasaten ligatzen da?

Nik ez. Oso denbora laburra egiten dut Arrasaten, eta orain arte hemen ez dut horrelako lagunirik aurkitu.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Giza Zientzien Komunikazioa • ZALETASUNAK: Antzerkia, zinema eta irakurtzea  
LIBURU BAT: 'Los pilares de la tierra' • FILM BAT: 'Las horas' • MUSIKA TALDEA: Operacion Triunfo ez den edozer • KIROL TALDEA: Alaves taldea

**Lore**

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50

**UGARTE**

**Industria hornidurak**

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.  
Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943-71 21 40

**AGR**  
García Ripa  
**ERREFORMAX S.L.**

**Metal aroztegia eta PVC**  
Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**  
Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**  
Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20

**TTUKUN**

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

BEHEKODENDATIK

# Pako Lardizabal

**KORTABERRI HARATEGIKUE**

XABIER URZELAI

Pako oin dala hogeta sei urte etorri zan Mondraguera, eta harategixek hamazortzi urte egingo ditte aurten. Segurarra, Gasteizen hasi zan lanien, eta gero Musakolan jarri euen harategixe. Bere esanetan, harategiko lana asko aldatu da, oin klientiek asko eskaketan dau-eta: "Izen biher dan moduen".

**Txikittan ze gure zeuen izen?**

Harakin.

**Gustora egingo dozu lan orduen.**

Bai, baiñe harakin lana asko aldatu da; oin danetik egitten dogu.

**Ze eskatuko zeuskio alkate barrixari?**

Komertzio txikiñei lagunketie; trabarik ez jartie, behintzet.

**Drogak legalizauko zeuke?**

Bai; hola, trapitxeo txikixague egongo litzake.

**Eta prostituziñue?**

Hori be bai.

**Pelikula bat? Liburu bat?**

**Musika talde bat?**

Western-ak gustetan jat / Liburu gutxi irakurten dot / Mikel Urdangarin, esate baterako.

**Nora juengo zitzake gustora? Kanadara.**

**Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?**

Lagun bat, irratixe eta eskopetie.

**Etxeko lan gorrotagarriena?**

Ohie egittie.

**Juergazalie zara? Juergarako leku bat?**

Bai, apur bat bai. Herrixetako girue gustetan jatenez, Segura.

**Puntuau Mondragueko girue. Zazpikue-edo.**

**Abuzturako ze asmo?**

Aste bat mendire eta beste aste bat hondartzara.

**Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?**

Laban ona eta frigorifikue.

**Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?**

Okurridu be ez jat egitten.

**Zergaittik egingo zeuke**



*"Udalak komertzio txikiñei lagundu biherrien, trabak besterik ez dutzo ipintten"*

**lanuztie gustora?**

Jentiek gure lana balorau dai-xen. Izen be, egun osue emuten dogu hamen, eta hori ez da esker-tzen. Hori bai, egun bat libre hartu ezkeru...

**Denpora librien ze egitten dozu?**

Bizikletan ibilli, pasiau, mendire juen...

**Janari eta edari gustokue-nak?**

Arraultza prijiruek egunero jan-go neuke; edateko, sagardaue.

**Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?**

Udalak komertzio txikiñei lagunketako asmue daukola.

**Egun osue okelie mozten**

*"Neri ganadu okelie gutxi egindde gustetan jat, baiñe gainontzeko okelie ondo egitten dot"*

**pasau eta gero, etxera juen eta afaitteko...**

Afaitteko ez dot okelarik jaten; baiñe, bestela, okelazalie naz.

**Txuletie, txuletillak, solomillue... Ze gurago?**

Aukeran, txuleta on bat.

**Ondo ala gutxi egindde?**

Txuletie gutxi egindde gustetan jat.

**Esaten daue okelie gutxi egindde jan biher dala.**

Hori gustuen araberakue da. Nik neuk ganadu okelie gutxi egitten dot, baiñe gainontzeko okela dana hobe da ondo egittie.

**Nungo okelie dauketzu?**

Ataungo okelie dauket, prime-rakue, Eusko Labeldune!

## NIREBIDAIAHURA/ Naiara Bengoa

Ekuatore Ginea / 2003ko maiatzetik ekainera arte

**N**aiara mondragoetarra da, baina Bartzelonan bizi da, han dabil-eta lanean. Naiara medikua da, eta bi arrazoirengatik joan zen Ekuatore Ginea: batetik, medikuntza tropikala ikastera; eta, bestetik, beste esperientzia bat bizi izatera.

Gaur egun geroago eta atzerritar gehiago dago gure artean, asko Afrikatik etorritakoak, eta eurek izaten dituzten gaixotasunak ezagutzeko asmoz joan zen Naiara Afrikara. Naiararen esanetan esperientzia polita eta, era berean, gogorra izan da. Ekuatore Gineara joatea ez da batere erraza, han ez dago-eta turismorik. Bartzelonan bizi den lagun baten bitartez joan zen Naiara Gineara. Laguna hango da, eta haren familiaren etxera joan zen. Ekuatore Ginea hiriburua Malabo da; baina Naiara Batan izan zen, errepublikako hiri handienetako baten: "Hangoak beltz-beltzak dira, eta argi nuen atzerritarra ni nintzela, baina ohitu ere berehala ohitu nintzen".

Han dauden medikuek asko eskertzen dute jendea laguntzera joatea: "Hala ere, hara joaten zara pentsatzen badaukazula hango herritarrei zer erakutsi, eta gero konturatzen zara eurek ere zenbat daukaten erakusteko; asko ikasi dut han". Naiararen esanetan, Ekuatore Ginea ez da oso-oso pobrea: "Lurralde hartan ondusun asko dago, baina gaizki banatuta. Hango jendea ez dago goseak, baina gaixotasun asko dago. Nekazaritzatik bizi dira, eta egur asko daukate". Bizimodua ere bestelakoa da han: "Familia jende askok osatzen du, seme-alaba asko izaten dituzte, eta, horrez gainera, etxe baten bizi izateko ez dago zertan etxe horretako seme edo alaba izan; hau da, urruneko familiakide batek ere leku izango du etxe horretan".

Datorren astean Ginean jarraituko dugu Naiararekin, asko dago-eta kontatzeko: Ekuatore Gineako arazo nagusiak, magia beltza, gaixotasunak, euren sinismenak... Hori guztia, baina, datorren astean.



*"Medikuntza tropikala ikasten ibili naiz Ekuatore Ginean"*

ARRASATE IRRATIA/XABIER URZELAI



Naiara, Ekuatore Gineako lagunekin.

## Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

**Deitu 943 71 25 11 telefonora.**



ZAHARREN ETXETIK

JOSE MANUEL ARRIOLA/ERRETIRATUA

# “Osaba bertsolaria zen, baina aitak ez zuen gustuko; zaletasuna ezkutuan gorde nuen”

IKER BARANDIARAN

Jose Manuel Arriola debarra da jaiotzez, baina 1939an Arrasatera etorri zen udaltzain lan egitera, eta bizi izatera. 42 urte eta erdi egin zituen lan horretan, eta erretiratu zenean omenaldia egin zioten. Bertsozale handia da.

Jaiotzez ez zara arrasatearra, ezta?

Ez. 1916an jaio nintzen, Deba-ko Goikoetxe baserrian. Zortzi anai-arreba ginen. Baserri lanak egin nituen, gerra hasi zen arte.

Gerrak bete-betean harropatu zintuen?

Frankistek Deba hartu zuten, armadan sartu ninduten eta Marokora bidali ninduten instrukzio militarra egitera. Madrilgo frontera eramanez gintuzten. Oso bataila gogorra izan zen. Araba eta Zaragoza arteko frontean sartzen saiatu ginen, baina zauritu egin ninduten. Bala leherkari batek mokorrean jo zidan. Ospitalez ospitale ibili ninduten, eta azkenean gerrako elbarri agiria eman zidaten.

Orduan bukatu zen gerra zuretako?

Bai. Ceutara bidali ninduten, eta han zortzi hilabetez postari lanak egin nituen. Halako baten, lanpostu ofiziala lortuz gero armadatik lizentziatu egingo nindutela esan zidaten. Hala, Arrasaten udaltzain lanpostua aurkitu nuen, eta hona etorri nintzen.

Hortaz, udaltzain lana kasualitatez hartu zenuen... Gustura ibili zinen?

Bai, halaxe da. 1939ko abuztuan heldu nintzen Arrasatera, eta oso ondo hartu ninduten. Gogoan daukat Udaleko idazkariak honako hau esan zidala: “Gipuzkoan ez dago Arrasate baino herri garestiagorik”. Esku artean ordenantza zaharra, kode zibila eta zirkulazio kodea erabiltzen genituen. Besteak beste, klaustroetan ez genuen pilotan



IKER BARANDIARAN

egiten uzten, Herriko Plazan ezin zen futboleaz egin eta 10:00etatik aurrera ezin zen alfonbrarik astindu. Baserrietatik kalera saltzera etortzen zirenei astoa non utzi esan behar izaten genien; batzuk haserretu egiten ziren, baina gure lana zen eta egin behar genuen. 42 urte eta erdi egin nituen udaltzain.

Arrasaten ezkondu eta seme-alabak izan zenituen...

Bai. 1948an ezkondu nintzen, Josepa Albizu debarrarekin, eta lau seme-alaba eta zazpi biloba ditugu.

Erretiratu zinenean omenaldia egin zizuten...

Bai, oso hunkigarria izan zen. Arrasateko Udalak omenaldia egin zidan 1981ean, eta nik ida-

“*Herritar batzuk udaltzainekin haserretu egiten ziren, baina herriak ondo hartu ninduen*”

tzitako bertsoen bildumarekin liburua argitaratu zuten.

Bertsozaletasun handia daukazu...

Bai, oso txikitatik. Osaba bertsolaria nuen, eta aitak ez zuen osaba gustuko. Arrazoi horregatik urtetan zaletasuna ezkutuan gorde nuen.

“*Erretiratzean, Udalak omenaldia egin zidan eta nire bertsoen bilduma argitaratu zuen*”

(Bat-batean, halako bertsoa bota zigun)

Gure jaun onak halaxe nahi-ta/oraindik hemen banabil/ez du esan nahi nere azkena/ez danik egongo hurbil/norbaitek galde egin lezake/etzat iruditzen zail/baina ordea aitona hura/oraindik hemen al dabil?

LABUR

## Uribarri elkarteak itxita egongo da hamabost egunean

Abuztuaren 10etik 25era bitartean, Uribarri elkarteak eta taberna itxita egongo dira. Izan ere, tabernako arduradun eta elkarteak zaintzaileak urtean hainbat egunean jai hartzeko aukera dauka.

## Uribarri elkarteak Donibane Lohizunera txangoa antolatu du

Uztailaren 22an, Uribarri elkarteak Donibane Lohizunera eta Hondarribiara txangoa antolatu du. Interesatuak 20 euro ordaindu beharko dituzte. Goiza Donibane Lohizunen pasatuko dute, eta Hondarribian bazkalduko dute. Txartelen zozketa martitzenean, uztailaren 15ean, egingo dute.

## Toki Argi elkarteak Costa Bravara joango dira

Toki Argi elkarteak Costa Bravara joango dira irailaren 27tik urriaren 3ra. Hainbat herri eta hiri bisitatuko dituzte: Figueres, Ampuria Brava, Girona, Barzelona, Tossa de Mar...

Bakoitzak 220 euro ordaindu beharko ditu, gastu guztiak barne. Izena eman lehenbailehen.

## Santa Marinako jaietan erretiratuak omenduko dituzte

Bihar, zapatua, Santa Marinako jaietan, auzoko erretiratuei omenaldia egingo diete. 13:00etan, meza egingo dute Mesedeetako Amaren elizan. Horren ostean, bazkaria egingo dute Mesedeetako Amaren jangelan. Urtero moduan, Toki Argi elkarteak gizon eta emakume zaharrenei omenaldia egingo diete.



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

## ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



ARRASATE  
**Unai Vela**  
Uztailaren 15ean, 10 urte.  
Zorionak! Txema, Susi,  
Ametz eta auzokoak.



ARRASATE  
**Oxel Luengo**  
Uztailaren 8an, 3 urte.  
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Zoihartze Artetxe**  
Uztailaren 14an, 10 urte.  
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Ane eta Julen Santa Cristina**  
Uztailaren 12an, 1 urte, eta abuztuaren 4an, 4 urte.



ARRASATE  
**Juan Luis Otxandiano**  
Uztailaren 8an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Markel Lasaga**  
Uztailaren 5ean, 18 urte.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Jokin Etxebarria**  
Uztailaren 9an, 23 urte.  
Zorionak! Arrasate Irratiko lagunaren partetik.



LEGAZPI  
**Stella S. de Samaniego**  
Uztailaren 11n, 9 urte.  
Zorionak! Arrasateko ama-  
ma eta osaba Jose.



ARRASATE  
**Alai Iza**  
Uztailaren 11n, 6 urte.  
Zorionak!



ARRASATE  
**Maider Azkarraga**  
Uztailaren 7an, 8 urte.  
Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE  
**Nerea Maskariano**  
Uztailaren 17an, 13 urte.  
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Jone Zabala**  
Ekainaren 26an, 9 urte.  
Zorionak! Lehengusuen partetik.



ARRASATE  
**Lucia Oiarzabal**  
Uztailaren 9an, urtebetetzea. Zorionak! Juli, Vicen eta Eli.



ARRASATE  
**Mertxe Sanz**  
Uztailaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Sara eta Asier iloben partetik.



ARRASATE  
**Aitana Gómez**  
Uztailaren 15ean, 5 urte.  
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Xabier Tristán**  
Uztailaren 11n, urtebetetzea. Zorionak!



ARRASATE  
**Nagore Iria**  
Ekainaren 27an, 29 urte.  
Urte askotarako! Txusti eta Bixenta.



ARRASATE  
**Nekane López**  
13an, 29 urte. Urte askotarako! Familia eta lagunak.



ARAMAIO  
**Urko Pérez**  
Uztailaren 12an, urtebetetzea. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE  
**Ane Garro**  
Uztailaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak! TMT.



ARRASATE  
**Xabier Balerdi**  
Uztailaren 16an, urtebetetzea. Zorionak! TMT.



ARRASATE  
**Paula Iregi**  
Uztailaren 12an, 7 urte.  
Zorionak! Etxekoak.

**Adi!**  
Argazkiak emateko lekua:  
**Arrasate:**  
ARRASATE PRESS  
Otalora Lizentziaduna 31.


# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



EZETZASMATU



Bi enpresa elkartu eta Union Cerrajera sortu zuten 1906an.  
Ze bi enpresa?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Gurelesa esne osoa**  
Litroko brika

**0,67€** 111 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**AIZPEA AJURIAGUERRA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Aizpea!

Galderen erantzun zuzena:

**Bizkaia etorbidea, Kanpanzarrerako bidea edo Gernika Oinezkoen Zumardia.**

ARRASATEKOHISTORIA

Monterrongo kondeen gainera zenbait argibide

ION ANDER RAMOS

Monterrongo kondeen aurreneko etxea Erdiko kalekoa izan zen, 20. zenbakiduna (Urizar kafetegia zegoen hantxe, gaur egun Kajoi taberna dagoen lekuan); etxe horrek aurreko aldean bi armari ditu: Andiako-Zelaarena eta Loiola- Oñaz-Irazabalena, hain zuzen.

Kondeen bigarren etxea Zarugaldekoa da, bigarren zenbakiduna; aurreko aldean bi armari ditu etxe horrek: Andiako-Zelaarena eta Aranguren-Untzuetarena, hain zuzen.

Zarugaldeko jauregiaren sarrerako katea 1700ean ipini zuten, Felipe IV.ak jauregiari emandako inmunitatearen erakusgarri; errege-jauregi bihurtu zela, alegia. 1900etik 1950era arte kenduta egon ziren, baina gero berriro ipini zituzten. Sasoi hartan Miguel Alejandro Fernández de Riviera y Gómez Monterongo konde andrearekin zegoen ezkontuta, Maria del Rosario de Aranguren y Palacio-ekin, hain zuzen ere; bikotea geroago eta gehiago egoten hasi zen Zarugaldeko jauregian. Martin Nikolas de Arangu-

*Errege-erreginak gaua jauregian pasatzen zebiltzala esaten zuen jauregiko kateak*

*1689ko urriaren 10ean eman zion Monterongo konde titulua Carlos II.a erregeak*

ren jaunak katearekin batera bi zutabe ipini zituen jauregiaren aurreko aldean, 1701ean; horrek ika-mikak piztu zituen herritarren artean, ustez alkatearen eskumenak gainditzen zituela eta Foruen kontrakoa zela-eta.

Juan Andiako Zelaa izan zen Monterongo aurreneko kondea. Diego Andiako Loiolaren eta Isabel López de Zelaaren semea zen; Salamankako Unibertsitate-



Erdiko kaleko eraikina izan zen Monterongo kondeen aurreneko jauregia.

an katedraduna; Santiagoko Ordeneko Zalduna; Valladolideko Txantzellariako eta Gaztelako eta Gerrako Kontseilu Errealen Fiskala eta Entzulea. 1689ko urriaren 10ean eman zion

Monterongo konde titulua Carlos II.a erregeak.

Erdiko kaleko etxean dago haren armarrria.

Bestalde, Mateo Aranguren izeneko kapitan bat (indianoa)

kondearen arrebarekin (Maria Sáez de Andiako) ezkondu zen eta Aranguren izeneko maiorazkoa edo premutza sortu zuen. Hark eraikiarazi zuen Zarugaldeko jauregia.

UBANE MADERA

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko uztailaren 11 / 72. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Udalaren funtzionamenduaren nondik norakoak zehaztu dituzte

U. M.

Abiarazi dute udal antolamendua: osoko bilkuren eta batzordeen ordutegiak eta egunak erabaki dituzte; horrez gainera, batzordeak eratu dituzte eta bestelako erakundeetako izendatzeak egin dituzte. Era berean, erabaki zuten eguaztenean (hilaren 9an) osoko bilkura egitea.

Joan den eguaztenean (hilak 2) egin zuten batzar hori. Hala, hartutako bestelako erabakien artean, zehaztu zuten abendura bitarteko osoko bilkurak orain arte moduan egingo dituztela: hilaren hirugarren eguaztenean, 18:00etan. Horrekin batera, erabaki zuten uztailean osoko bilkura bi egitea, uztailaren 9an eta 22an, atzeratuta dauden lanak egiten hasteko. Horren ostean, batzordeak eratu zituzten.

### BATZORDEETAKO TALDEAK

Hala, Hirigintzako buru Roberto Aginagalde izendatu zuten, eta Jesus Agirre eta Patxi Aiasturi izango ditu batzordekide.

Zerbitzuburu Andres Osinaga izango da, eta Aitor Abarrategi eta Mertxe Mondragon izango ditu laguntzen.



Besteak beste, erabaki zuten, orain arte moduan, osoko bilkurak eguaztenean izango direla, 18:00etan.

Ogasun batzordeko buru, berriz, Patxi Untzueta izango da, eta Valentin Arriaranek eta Mertxe Mondragonek osatuko dute taldea.

Mendien batzordean Valen-

tin Arriaran izango da gidari, eta Patxi Untzueta eta Mertxe Mondragon laguntzaile.

Kulturaren Jesus Agirre izendatu zuten buru, eta Mertxe Mondragon eta Jose Goronaeta izan-

go dira laguntzaile.

Azkenik, Euskara batzordean Jose Goronaeta izango da zuzendaria, eta Jesus Agirre eta Mertxe Mondragon izango dira laguntzaile.

*Oraingo hilean osoko bilkura bi egitea erabaki dute, atzeratutako gauzak egiten hasteko*

### BESTELAKO IZENDATZEAK

Horrez gainera, Udalak ordezkariak izendatu zituzten. Honako hauek: Zuiako Koadrilan, Andres Osinaga eta Mertxe Mondragon; UEMAn, Jose Goronaeta; Gorbaiako Inguruak elkartean eta Urkiolako Parke Naturaleko Patronatuan, Valentin Arriaran; Eskolako Kontseiluan, Deba Garaiko Ospitalean eta Elkarkidetzako Kontrolean, Mertxe Mondragon; Arabarrin, Roberto Aginagalde; eta Vital Kutxan, Patxi Untzueta. Bukatzeko, Jesus Agirre alkateorde izendatu zuten.

### AUZO ALKATEAK

Bestalde, jakinarazi zuten auzo-alkateak ere izendatu beharra dagoela. Baina, oporrak direla eta, erabaki zuten irailaren 17a ipintzea izendatze horiek egiteko epe-muga moduan.

## Orixolen egindako lana Artium museoan ikusgai

U. M.


Perejaume izeneko artistak Orixol mendian egindako lana Artium museoan dago ikusgai. Artista katalanak pieza erraldoi bat egin zuen, eta Orixol mendiaren tontorrean ipini zuen; horren ostean, argazkiak atera zizkion.

Argazkiak eta pieza handi zuria, biak hala biak daude ikusgai Artium museoan. Hain zuzen ere, Perejaume artistaren *Retrotabula* erakusketan.

Esandako moduan, pieza erral-

doia egin, Orixolen tontorreraino eramane eta han ipini zuen, argazkiak ateratzeko. Helburua paisaia naturala eta museoa uztartzea izan da. Kontua da artista katalanak Gasteiztik gertu dauden mendiaren argazkiak ikusi zituela eta inguruko mendietatik zenbait ibilaldi egin zituela. Hala, bere ideia aurrera eramateko leku aproposena Orixol mendiaren tontorra zela erabaki zuen. Eta orain emaitza dago ikusgai Artium-en.

Baina, horrekin batera, esan beharra dago ekimenak zenbait herritarren haserrea piztu zuela, mendiari kalte egin diolakoan.



Urriaren 26ra arte egongo da ikusgai Perejaumeren erakusketak.

### LABUR

#### Areto futboleko aste bukaerako emaitzak

Uztailaren 21etik 26ra arte, Erretiratuen Kultura Astea egingo dute Aramaion. Hala, besteak beste, uztailaren 23an txangoa egingo dute Arabako zenbait lekutara eta uztailaren 26an bazkaria egingo dute Aramaion. Hala, ekitaldi bi horietako edozeinetan parte hartu gura duten erretiratuek, alargunek eta pentsiodunek datorren eguaztenea, uztailaren 16a, baino lehen eman behar dute izena.

# Uztaileko bigarren domekak agintzen duenez: San Kristobal

U.M.

Antzin-antzinako ohiturekin aurrera egin dute Uribarrikoek, eta beste urtebetez San Kristobal eguna ospatuko dute domekan. Egurdian hasi eta iluntzera arte izango da bai zerekin gozatu San Kristobalگو zelai ederretan. 25 bat lagun ibili dira dena antolatzen.

San Kristobal ermitan egingo duten mezarekin hasiko dira ospakizunak. Mezaren ostean, 13:00etan Lagun Artean dantza taldeak saioa egingo du; ondoren, Gau Alai taldeak bisitarien oinak dantzan ipiniko ditu erromerian, bazkaltzeko ordura arte. Bien bitartean, ogitartekoak, pintxoak eta salda hartzeko aukera izango da, Uribarriko Intxaurren elkartearen eskutik (jaiaren antolatzaileak).



TXIRRITOLA

Aramaioko eta inguruko jende ugari erakartzen du San Kristobal jaiak.

## BOLO TXAPELKETA

Jaiaren antolatzaileetako batek, Angel López de Bergarak adierazi digunez, bazkal ostean, 17:45 inguruan, bolo-txapelketa izango da San Kristobalén. Edozeinek izango du parte hartzeko aukera, eta aurreneko hiru irabazleendako sariak eta guzti egongo dira: urdai-azpikoa, lehenengoarendako; solomoa, bigarrenarendako

eta gazta, hirugarrenarendako. Txapelketa kanporaketetara jotuko dute. Gau Alai taldea ere inguruan ibiliko da arratsalde partean, 19:00ak arte.

## ANTZINAKO JAI

Angel López de Bergarak esan digun moduan, jende asko era-

kartzen du San Kristobal jaiak, Aramaiokoa zein ingurukoa: Eskoriatza, Otxandio, Aretxabaleta... Aspaldiko ohitura dela kontatu digu, lehen astoa hartu eta etortzen zirela. Aurten ere, jendeari jaira joateko gomita egin dio, leku ederra delako San Kristobal. Ea bada, eguraldia lagun duten!



## Amuarrainak harrapatzeko Arrantza Lehiaketa

Amuarrainak arrantzan egiteko aukera paregabea ematen du Oilgor Ehiza eta Arrantza elkarrekin urtero, eta aurten ere hala izango da. Bihar, zapatua, 09:00etan hasiko da aurtengo Arrantza Lehiaketa, eta 13:00etan bukatuko da. Tartean, parte hartuko duten arrantzale gazteek 200 bat amuarrain izango dituzte Aramaio errekan, ahal duenak arrantzan egiteko. Parte hartzea erraza da; kanabera hartu eta Ehiztari Txokoa eman beharra dago izena; gero, elkartekoek esango diete non ipini amua botatzeko, eta hortik aurrera, norberaren abileziak aginduko du. Jakina, zeinek amuarrain handiena harrapatu, hark irabaziko du. Edozelan ere, esan beharra dago sari mordoan banatuko dituztela antolatzaileek, ia parte hartzaile guztiendako egongo da zerbait.

# Udalbatza berriaren aurreneko batzar arrunta

U.M.

Hasi da berriro ere Udala ohiko lana egiten eta atzeratutakoak eguneratzen. Horren adibide oraingo astean egin duten osoko bilkura. Gai mordoak zituzten zerrendan, besteak beste, itxi berri dituzten gazte lokalak, Oletako lanak, **Berria** egunkaria eta Hirigintzako gaiak.

Hemendik aurrera kultura etxeko gazte lokalekin zer gertatuko den zehaztu beharra zuten eguazteneko batzarrean. Horrez gainera, Oletako errepidearen zabaltearekin lotutako gaia landu zuten, **Berria** egunkariaren akzioak erostea edo diru laguntzaren bat ematea aztertu zuten, eta Javier Uribarrenek Udalarari emandako


plaka batengatik esker ona azaldu zuten udalbatzarrera osatzen duten EAJ-EA koalizioako kideek.

Horrez gainera, abere ustiapenekin lotutako etxebizitzak erakitzea arautzen duen ordenantzari behin betiko onespina eman beharra zioten, eta herriaren sarrean eraiki behar zituzte adosatutak berbagai izan zituzten. Bukatzeko, bestelako gaien artean, Udalaren egoera ekonomikoaren berri eman zioten udalbatza berriari.

## BI ASTE BARRU BESTE BAT

Edozelan ere, albiste hau idaztean batzarrera egin barik zegoenez, ez dakigu zein erabaki hartu dituzten zinegotziek.

Era berean, gogoratu beharra dago uztailearen 22an beste batzar bat egitea erabaki zutela, oporretara joan baino lehen.



U.M.

Lokalak direla-eta, gazteak kexu dira gertatzen dabilenarekin.

# Pilota jaialdia bihar, zapatua, kiroldegian

U.M.

San Kristobal egunaren bezpera dela-eta, Barea elkarrekin pilota jaialdia antolatu du. Bihar, zapatua, izango da, 22:15ean hasita. Lehenengo herrikoek jotatuko dute, eta gero, kanpokoek. Besteak beste, Elgetan jotatu den Lau t'erdiko sariketako txapelkunak jotatuko du.

Esandako moduan, aramaioren txanda izango da lehenengo. Alebin eta infantil mailakoan artean bikotea osatu eta honakoek jotatuko dute: Igorrek eta Markelek Xabiren eta Inakiren kontra.

Horren ostean, gazte mailakoan partiduak etorriko dira. Hala, Olazabal eta Betelu leitzarrek Axpe (Bedoña) eta Herrarte (Eskoriatza) Gipuzkoako txapelkunak izango dituzte aurrez aurre.

Eta, bukatzeko, Elgetan jotatu den ETBko Lau t'erdiko txapelketako jokalaririk biren arteko partidua izango da. Sorarrain (Alkiza) buruz buru arituko da Mintegiren (Lizartza) kontra.

Ikusten den moduan, beraz, partidu interesgarriak eta maila handikoak izango dira bihar gauean Aramaion.

## BIHOTZA ETA ETXEA, ARAMAION

Barea elkarrekin antolatu dituzten partiduok. Taldeko arduradun Enrike Axpek kontatu digun moduan, lehen, Aramaioko jaiaren ostean edo amaiera aldean beti egiten zuten halako pilota jaialdiren bat. Edozelan ere, azkeneko bi urteotan ez dute ezer egin. Horren aurrean, aurten, egoerari buelta eman eta partiduak antolatzea erabaki zuten. Besteak beste, Aramaion pilotarekiko dagoen zaletasunari eusteko eta San Kristobal bezpera dela gogora ekartzeko.



Herriko gazteenak laster asko girotu ziren jaietz gozatzeko.



Sakre taldea pozik geratu da barikuko kontzertuarekin.



Gatibu taldeak jende gazte ugari erakarri zuen Aramaioko plazara.



Etxafuegoa nora joango zen beldurrarekin bota zuten txupinazoa.

# Herritarrak gustura ibili dira aurtengo San Martin jaietan

**G**ustura geratu dira herritarrak aurtengo San Martin jaietan. Hasteko eta behin, barikuko kontzertuek jende gazte ugari erakarri zutela esan beharra dago. Batek baino gehiagok honakoa zioen: "Ez dakizu zein beteta egon zen plaza barikuan! Baina bete-beteta! Eta gero, tabernetan ere ia sartu

ezinda ibili ginen". Argi dago hori zein garrantzitsua den herriarendako. Horrez gainera, herriko Sakre taldeak bere musika taula gainean erakusteko aukera izan zuen.

Zapatuan, berriz, gustu guztietarako ekitaldietan parte hartzeko aukera izan zuten aramaiarrek: kirolak, antzerkia, karta-

jokoak, Olinpiadak...

Domekan ere ez zen jenderik falta izan jaietako ekitaldietan. Are gehiago, zenbaitzuen esanetan, Arrasateko Sanjuanetan baino jende gehiago ibili da Aramaion. Eta astelehenean, duda barik, udal-txepetan egin zuten herri afariak erakarri zuen aramaiar gehien Herriko Plazara: 100 lagun-edo.

Bukatzean, ezin ahaztu barik utzi Jai batzordea. Jaiak antolatzen aurre-lan handia egin zuela jakinarazi genuen, bai; baina kontua da jaietan bertan ere lanean ibili zela batzordea osatzen duen laukotea buru-belarri guztia ondo atara zedin zaintzen.

ARGAZKIAK:  
ITSASO LOPEZ DE BERGARA

*Jaietan bertan ere lanean ibili zen batzordea, guztia ondo atara zedin zaintzen*



**UMEAK IBILI ETA IBILI** Ez zuten ez aspertzeko astirik izan gazteenek! Barikuan Sebastopoleko Titiriteroen musika zaratatsuarekin eta magia ikuskizunarekin hasi, eta astelehenera arte makina bat ekinaldi egin dituzte dantzan, pailazoekin barrezka, txotxongiloei aho zabalik begira, haur parkean puzgarri artean eta margolanak eta bestelakoak egiten... Era berean, zirku lantegietan euren abileziak eta oreka erakusteko aukera izan zuten. Jakina, gurasoak ere pozik, umeak ondo zebiltzala-eta.



**PAPARGORRI, FIN-FIN** Aretoa bete-beteta egon zen Papargorri gazte abesbatzaren saioa entzuteko. Eta, ordu erdiko saioaren ostean, benetan gustura geratu ziren herrikideak kultura etxean entzundakoarekin. Papargorrikoek ondo bete zuten lana, eta abesti alaiak eta *martxosoak* kantatu zituzten. Bitxikeria moduan, esan beharra dago mutiko bakarra igo zela taula gainera neska guztien artean; hortaz, eta abesbatzaren arrakasta ikusita, ea besteren bat animatzen den! Segi aurrera, gazteak!



**LAUKOTE TXAPELDUNA** Bertso saio polita eta luxuzkoa ikusteko eta entzuteko aukera izan zen domekan. Euskal Herriko lau txapeldunak taula gainean batu, eta Andere Arriolabengoa aramaiarren esanetara ibili ziren bertsotarako abilezia erakusten. Asier Otamendi arabarra, Igor Elortza bizkaitarra, Aitor Mendiluze gipuzkoarra eta Amets Arzalluz nafarra ibili ziren nor baino nor gehiago. San Ferminak, Beckham, Fidel Castro eta horrelako gaiak erabili zituzten bertsotan egiteko.



Galiziako ohiturek ere izan zuten lekutxo Aramaion.



Herriko artista gazteek Arrasate Musikalen ikasitakoa erakutsi zuten.



Hotzari beldurrik ez, eta pozik ibili ziren umeak mangeraren ur zorrotadaren aurrean.



Fardo jaurtiketa moduko herri kirolak erakutsi zituzten Betagarri taldekoek.

ERRETRATUZAHARRA

# San Juanetako hirugarren eguna

**A**ste honetako argazkian orain dela 40 bat urteko San Juanetako hirugarren eguna gogora ekarri dugu. Ez da lehenengo aldia San Juanetako egun horren gainean berba egiten duguna. Sasoi hartan jaiak beste modu baten ospatzen ziren, eta hirugarren eguna berezia zen.

Jaia, gauz baino gehiago, egunez ospatzen zuten. Hirugarren egunean, koadrilak goizean goiz jaiki eta sokamuturrera joaten ziren. Gero, txikiteoa egiten zuten eta eguerdian Herriko Plazan dantzan egiten zuten. Horren ostean, arrasatear askok etxetik kanpo bazkaltzen zuten. Koadrilarekin egoteko eguna zen, eta hala egiten zuten argazkiko protagonistek, baita beste askok ere. Arrasatear askok kanpoko lagunak eta senideak etxera gonbidatzeko ohitura zuten.

Argazkian agertzen den mutil koadrilak neska talde batekin dantzan egin zuen, eta elkarrekin argazkia atera zuten Iturriotz kalean. Atzean Herriko Plaza dago.

Aurreko aldean, ezkerrean dagoen



mutila ez dakigu zein den. Haren atzean dagoena, berriz, Jose Juan de la Maza da. Ezezagunaren ondoan dagoena, lehenengo ilaran, Blanca Landa da. Beste hiru neskak ezin izan ditugu identifikatu. Aurrean, eskuman dagoena, Jabier Bergaretxe da.

Atzeko aldean dauden artean,

ezkerrean dagoena Jose Luis San Vicente da. Haren atzean dagoena, aurpegi erdi ikusten zaiona Luis Mari Elortza da. Haren alboan Jose Luis Agirregomezkorta dago. Argazkilaritari berbetan dabilena Juan Jose San Pedro da. Haren atzean daudenetatik, bat ez dugu ezagutzen; beste biak, ordea, Elias

Beitia eta Juanito Zubizarreta dira. Nesken atzean, eskuman dagoena, Roman Zumelaga da.

**Argazkia:** Luis Mari Elortza.

**Informazioa:** L.M. Elortza eta Angel Baltzategi.

**Urtea:** 60ko hamarkada hasiera

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

# Arrasate pasealekuaren bilakaera

**O**raingo asteko *Nola aldatzen diren gauzak* saila ez da ohikoa. Normalean argazki zaharra gaur egungo argazki batekin alderatzen dugu, baina oraingoan ez dugu horrelakorik egin: ezkerreko argazkia, 1920koa, orain dela urte bi argitaratu genuen. Orain, berriz, Arrasate pasealekuko beste argazki bat daukagu, 30 urte geroago ateratakoa.



≈ 1920

Goiko argazkia Ignacio Oiangurenek atera zuen, eta 2001eko azaroan eman genizuen argazki horren berri.



1950

Argazkian ikusten denez, izena ezin hobeto dator kio Arrasate pasealekuari. Horretan, behintzat, gauzak ez dira askorik aldatu.

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

ileapaindegia  
peluqueria


GORKA

Orduetgia:  
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00  
Larunbatetan 08.00-14.00  
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

BASATI  
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762



Gure  
helburua


03UDA

**Udalaitz**



Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**KANPAZAR**



Bizkaia etorbidea z/g • ARRASATE • 943 79 41 98  
Araba etorbidea z/g • ARRASATE • 943 79 77 66

**ad Ibabe**  
G A R A J E A

Gesalibar auzoa 31 • ARRASATE • 943 79 99 61

**Giauto**



San Andres 10D • ARRASATE • 943 77 30 10  
www.giauto.es



**EKOMOBIL, Koop. Elk.**

Zaldispe kalea 2 • ARRASATE • 943 79 50 71

**HYUNDAI**  
MENDARO AUTOAK

San Andres 10D • ARRASATE • 943 77 21 00

**CHAPIME  
TAILERRAK**



**CITROËN**

San Andres 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

**MUGARRI**



Araba etorbidea z/g • ARRASATE • 943 79 07 44

Deskubritu ezazu

# Signum Klase berria



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.



Gutziz auto berria. Barrutik aparta eta kanpoko diseinua erabat dotorea. Opel Signumek parekorik ez duen espazioa emango dizu, erabateko flexibilitatea eta benetako erosotasuna, bai zuretzat eta baita atzealdeko bidaiarientzat ere. ECOTEC motor generazio berritzailearekin, horren erakusgarri 155 zalditako injekzio zuzena duen 2.2 16v motorra, 177 zaldi dituen 3.0 V6 CDTI Turbodiesel Common Rail motorra eta 211 zaldidun 3.2 V6 motor indartsua. **Auto honetan zu zara ohorezko gonbidatua. Zuretzat egin dugu. Opel Signum berria da.**

## Giauto

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. **ARRASATE**

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)